

Euskal AEko Merkatu-zerbitzuen sektoreko salmentak % 9,8 igo dira 2023ko lehen hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 1,6 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzu batzuen* sektoreko salmentak % 9,8 igo dira 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak kenduta. Sektore horretan *Garraioaren, Ostalaritzaren, Informazioaren eta komunikazioen eta Enpresentzako zerbitzu-jardueren* sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta beharrezko urtaro-eraginak atera ondoren, salmentak % 1,6 igo dira 2023ko lehen hiruhilekoan.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorearen barruan, salmenta errealean urte arteko berreskuratzea orokorra izan da (prezio konstanteetan). *Garraio eta biltegiatzean* % 19,4ko hazkundera izan da, *Ostalaritzan* % 5,9koa, *Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrietan* % 5,4koa, *Informazioa eta komunikazioak* delakoan % 4,0koa eta, azkenik, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan*, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, salmenten igoera % 2,4koa izan da.

2023ko lehen hiruhilekoa eta 2022ko laugarren hiruhilekoa alderatuta, salmenten portaera positiboa ikusten da sektore guztietan. Hala, *Jarduera profesional, zientifiko eta tekniko* sektorean, salmentak % 2,8 igo dira hiruhileko artean; *Ostalaritzan*, % 2,6; *Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrietan*, % 2,3; *Informazio eta komunikazioak* deritzonengan, % 2,1; eta, azkenik, *Garraio eta biltegiatzean*, salmentak % 0,6 handiagoak izan dira 2022ko azken hiruhilekoan baino.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Beste merkatu zerbitzu batzuk. Behin-behineko datuak. 2023/I

	Prezio finkoak		
	Indizea	t / t-4	A(t) / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	9,8	1,6	9,8
Garraioa eta biltegiatzea	19,4	0,6	19,4
Ostalaritza	5,9	2,6	5,9
Informazioa eta komunikazioak	4,0	2,1	4,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	2,4	2,8	2,4
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	5,4	2,3	5,4
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	12,4	4,4	12,4
Bizkaia	5,8	0,8	5,8
Gipuzkoa	16,7	2,0	16,7
EMPLEGUA	0,0	0,2	0,0

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Lurraldeka, Gipuzkoan urte arteko % 16,7ko igoera izan da salmenten indizean, Araban % 12,4koa eta Bizkaian % 5,8koa. Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, lurralde guztietan izan da hazkundera, % 4,4koa Araban, % 2,0koa Gipuzkoan eta % 0,8koa Bizkaian.

Euskal AEko zerbitzu horietako enplegatuen indizeak ez du aldaketarik izan 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko hiruhilekoaren aldean, ordea, % 0,2ko igoera izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak ematen dizkie lagundu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik, egoera gorabehera. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **92,5eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62